

Aizpelarretan



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Zuhaitz handiak bakanak dira gure inguruan. Beldur ikaragarria sortzen digute eta izu horrek zuhaitzak lepatzera garamatza. Gainera etorriko zizkigula uste dugu, beren bizitzaren helburua gu akabatzea balitz bezala. Beste zeregin hoberik ez dutelakoan. Koitaduok!

Landare guztiek bizi ahal izateko hazi egin behar dute. Ez dira animaliok bezalakoak. Haiek etengabe hazi, handitu, luzatu egin behar dute. Urtero soineko berri bat eraikitzen dute lehengoaren gainean. Zuhaitzen enborra ebakitzen dugunean horiek azaltzen dira. Soineko berri bat egiten ez duen urtean zuhaitza hil egingo da. Guk, inausi, lepatu, kimatu eta abar eginez soinekoa urratu eta gaitzak eta izurriteak muineraino sartzeko atea parez pare irekitzen diegu. Guraizearekin eta zerrotearekin, motozerrarekin ez esateagatik, alde batetik umetu egiten dugu, eta beste aldetik hiltzea erraztu.

Beldurraren harrotasun arrak eragindako zuhaitz mozketak kriminalak dira. Helburua, aitzakia, zuhaitzaren ingurua seguruagoa bihurtzea izan ohi da, baina



Haritz motzak Olabezarren, Aiarako haranean (Araba).

NATURAYALA

hain zuzen alderantzizkoa lortzen dute: zuhaitzak zauri gehiago izanik, hezeta-suna barra-barra sartuko zaio zuraren mamira eta pixkanaka iruditzen eta usteldu egingo da. Zuhaitzari eusten dion egitura gero eta ahulagoa izango da eta, horra, zuhaitza zure buru gainera erortzeko arriskua biderkatua.

Zuhaitzak mozteko arrazoi bakarrak kulturalak behar dute izan. Bertakoen bizimoduari lotutakoak alegia. Bizitzeko letxugari (*Lactuca sativa*) edo untxiari lepoa mozten diegun bezala, bizimodu iraunkorrak eskatzen eta bermatzen duen ekintza kulturala izan behar du. Ehunka urtean gure mendietako basoak landu ditugun eran. Baso motzak, adibi-

dez. Larrea, energia, zurajeetarako gaia, azpietarako inaurkina, ongarria eta abar eskuratzeko basoaren ustiaketa iraunkorra antolatu eta burutu izan da. Lan horren azken hondarra dira gure baso horietako zuhaitz motzak, gure aurrekoen lanaren arrasto izugarriak. Bilatzea, topatzea, ezagutzea, agurtzea, gurtzea eta zaintzea merezi duten zuhaitz puska beldurgarriak. Sekulako monumentuak. Adibidez, Gipuzkoako pago motz (*Fagus sylvatica*) handiena Pagoetako Parke naturalean bizi da, Aiako Altzola bailarako Aizpelarreta basoan. 2016ko uztailaren lehenean neurtu zioten gerria: 6,2 metro. Urtero hiru zentimetro hazten omen da. Bisita bat merezi du, ezta? ■



Kartzelan

Lisboara joateko asmorik baduzu, *Basílica da Estrela* bisitatu gabe ez alde egin. Basilikara bertara sartu beharrik gabe, ziztrinkeria bat ordaindu, eta kanpoko aldetik erantsita duen eskailera kiribileko 114 mailak igo. Basilika osoa terraza handi bat da, teilaturik gabe. Bista izugarria: Tajo erria, itsasoa eta Lisboako amaigabeko mendixkak. Aldamenean, atari aurrean, parke eder bat zuhaitz izugarriaz tontorka.

Atzean, Klasiren komentua zena. Eta terrazatik, komentua begi bistan. Klaustroa, pertsonen kartzela, baita landareena ere. Eskerrak goia libre eta zerurantz hazteko aukera duen ailantoak, *Ailanthus altissima*. Joaten bazara, nire partez, eskumuinak eman zuhaitz gajoari.

ARGAZKIA: JAKOBA ERREKONDO